

# Pertsonak

- Beharrezkoa da tolosar guztiak kaleetan eta etxeetan seguru sentizea. Beharrezkotzat ikusten dugu hirigintza barneratzailea lantzea (Tolosako mapa morea sortzea) eta indarkeria sexistaren kontrako protokoloak eta kanpainak bizirik mantentzea, berrikusiz eta indartuz. (Emakumeak, gizonak, LGTBI)
- Berdintasun irizpideak bai herri antolaketan, bai segurtasun eta mobilitateko politikeetan bultzatu beharko genituzke.
- Emakumeak eta kolektibo guztiak (LGTBI) Tolosa herriak dituen espazio publiko guztiak propio bezela ulertu eta sentitzea lortu beharko genuke, gaur egun gizonetzako okupatzen dituztenak modu partekatu eta orekatua bihurtuz.
- Espazioak, zerbitzuak eta aisialdiko aukerak modu inklusiboan diseinatu edo berikusi behar dira, bai emakumeak, bai gizonak, bai beste kolektiboak (LGTBI), elkarrekin, berdintasun alde lana egiteko.
- Beti, Tolosaren errealitatearen diagnosi gaurkotua eduki beharko genuke, beharrei erantzun zuzen bat eman ahal izateko.
- Administrazio ezberdinen eskumenak koordinatuta jokatzek berebiziko garrantzia du, pertsona, bakarra baita eta gure beharrak berriz anitzak. Helburua pertsonen beharrei erantzuna ematea bada, egoerak ezin dira era partzalean aztertu, eta zeharkakotasuna lantzeko administrazio ezberdinen arteko koordinazioa eta lankidetzaz ezinbestekoa da.
- Era berean herriko eragile ezberdinen koordinazioari denbora gehiago eskeini behar zaio, errealitate osoaren jabe izateko, lan egiten den esparru ezberdinetatik, egindako lana komunitatearen alde jarriz eta zeharkakotasuna landuz.
- Tolosarrak beraien etxean modu duin batean bizitzeko aukera ziurtatu beharra dugu.
- Tolosako egoera kontuan hartuta, jangela sozialaren berregokitzapena behar dela uste dugu, helburu soziala indartuz. Izan ere jangela soziala Udal Gizarte Zerbitzuen osagarri izan behar du, eragile guztiekin koordinatua.
- Gure herri proiektuan ezinbestekoa da gazteen elkartegintza eta partaidetza bultzatzea, gazte politika duinaren alde lan eginez. Horregatik zeharkako lerroa behar du izan gazteria, herriko jaietaz harago, gazteen iritzi eta arazoak une oro kontuan izanez.
- Tolosarren beharrei erantzuna emateko eta herritarren etxebizitza eskubidea sustatu ahal izateko, eredu desberdineko etxebizitzak bultzatu beharko genituzke, alokairuzko etxebizitza sozialak bereziki kontuan harturik eta auzo ezberdinetan alogerako etxebizitzak sustatuz.
- Gizarte bezela ditugun balore partekatuak indartu behar ditugu gizarte kohesionatu bat edukitzeko.



# Kultura, Hezkuntza eta kirola

- Euskararen erabilerearen normalizazioan aurrerapausu nabarmenak eman beharrean gaude, helburu izanik herriko gazteak eskolaz kanpo euskararen erabilera gehiago aurrera egitea, bereziki aisialdian eta kirolean.
- Tolosar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuz eta diskriminaziorik gabe, Euskara elementu bateratzailea izatea bultzatu beharko genuke.
- Tradizioa eta proiektu berrien arteko osagarritasuna posible dela erakutsi du Tolosak. Hori horrela izanik, herriak antolatzen duen kultur eskaintza ezberdinen arteko sinergiak birpentsatu behar dira. Topic, Antonio M<sup>a</sup> Labaien Kultur Etxea, Bonberoenea, Aranburu Jauregia, haur liburutegia, Leidor eta hauekin batera kale espazioek ere kultur ekimenak aurrera eramateko eremuak izateaz gain, gozameneko, erreflexiorako, jakinduria areagotzeko eta esperientzia ezberdinak partekatzeko balio behar dute.
- Tolosan kulturaren esparruan ekimen ugari burutzen dira, gure herria erreferentzia gunea bilakatuz, hauetariko asko herri ekimenez burutzen direlarik, tolosarron
- nortasunaren zeinu izanik. Indargune hau, eskualdean erreferente izanik, osagarri izan behar du Gipuzkoan burutzen diren beste hainbat kultur esperientzirekin.
- Tolosako udala, herri ekimenez sortutako kultur jardunen kolaboratzaile eta laguntzaile izan behar du eta ez inoiz oztopo. Kultura borondatez, afizioz eta bokazioz bultzatzen bada ere, udal administrazioa bide lagun izan behar du sortzen diren ekimen ezberdinetan.
- Kirolak baditu bere horretan beste gaitasun batzuen areagotzea: adiskidetasuna, laguntza eta nola ez gozamena eta plazerra. Balore positiboen transmisiorako tresna garrantzizko bezela bultzatu beharra dugu.
- Polikiroldegiaren erabilera eta ordutegia berikusi beharko zen tolosarren beharrei erantzun egokiena eman ahal izateko.

# Ingurumena eta lurralde antolaketa

- Ingurumenaren alorrean bultzada handia eman beharra dugu, beti ere eredu jasangarriak bermatuz, bai baliabide aldetik, baita ere gizarteari begira.
- Zaborren kudeaketan, energiaren erabilera eta ingurumenari begira eman behar den pausu garrantzitsua herritarren kontzientzia da. Eragile eta alderdi guztien mezu bateratu bat ematea oso inportantea da. Gai honetan, euskara edo berdintasunean bezela, gatazkak helburutik aldendu egiten digu.
- Ingurumenaren babesa herritarren konpromezutik iritsiko da. Ez inposizioatik.
- Energiaren aurrezpena eta burujabetza sustatu beharra dugu eta Udala eredu izan behar luke.
- Mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua egin beharra dago udal bidegorrien bitartez
- Trafikoaren antolaketaren inguruko hausnarketa egin beharko zen Tolosaren mugikortasuna arindu nahian.
- Herrigune eta auzo guztietan irisgarritasuna, aisialdi guneak eta beharrezko ekipamenduak bermatu beharko genituzke.
- Gaur egungo errealitatea kontutan hartuz eta San Estebaneko bizilagunekin eta elkarteekin partekatuz auzoaren planeamendua egin beharko genuke, ekonomikoki jasangarria izan daitekeen proiektu bat definituz eta kontutan edukirik herriak zabaltzeko dituen aukerak eta mukak.
- Oria ibaiaren erabilera indartu egin beharko genuke. Tolosa ibaiari begira egon beharra du eta ez bizkarra eman.
- Lurreamendiko lur sailak pasealeku eta parke gisa prestatu beharko genuke.
- Zumardi Txikia herritarrentzat berreskuratu beharko genuke.

# Ekonomia

- Sektore sozioekonomikoan merkataritza sarea Tolosan oso indartsua da, eskualdean “erakartze” lan handia egiten du dendaritzak. Inguruko herrietakoak ohitura handia dute bertara etortzeko bere erosketak egitera. Dendari sare horrek programa bereziak behar ditu bere etorkizuna bermatzeko eta bere egoera hobetzeko.
- Turismoak garrantzizko lekua du Tolosan, ekintza ugari antolatzen dira tolosarren onurarako eta turismoaren erakarmenerako: era guztietako feriak, kultur ekintzak etab. Turismoa berrindartu behar dugu eta beharrezkoa ikusten dugu turismoa berpiztea ekintza berritzaileak antolatuz Tolosako bizitza sozial eta ekonomikoa indartzeko.
- Tolosa nabarmentzen da tamainez enpresa txiki eta ertain ugari dituelako, gehienek 10 langiletik behera dituzte bere baitan. Hori horrela, oso garrantzizkoa da lankidetzarako bideak jorratzea eta sareak sendotzea. Ekimen pribatu eta publikoaren osagarritasuna indartzea garrantzizkoa da komuna den helburu bat lortu ahal izateko.
- Enpresarekiko (enpresari eta langileak) aitopen soziala bultzatu behar da, baina jabetzen gara, nazioarte mailako lehiakortasun geroz eta korapilatsuagoan bizi garela eta horrek esfortzu handiagoa egitera garamatzala, industria modernoagoa egiteko, teknologikoki aurreratuagoa, nazioartean txertatua, pertsona berritzaileen partizipazio ereduarekin eta bere inguru sozio-ekonomikoarekiko konpromiso sendoarekin. Horretan lan handia du egiteko Lehiberrik.
- Usabaleko industria poligonoa berritzeko neurriak behar dira.
- Apatxa-Erreka handitu beharra dugu enpresei lur-zoru gehaigo eskaintzeko.
- Enpresarako udal leihatila behar dugu. Empresa eta udalaren harremanak indartu behar ditugu.
- Ekintzaileak Tolosan “coworkingeko” proiektuak garatzeko espazio bat behar dute. Udala errealitate berri hauei erantzun zuzena eman behar die.
- Gune eta kale zaharkituetan denda berrien sorrera bultzatu beharra dago.
- Tolosako hiru azoka guneak indartu behar ditugu. (Berdura plaza, Euskal Herria plaza eta Zerkausia)
- Azokak, merkataritza, ostalaritza eta turismoaren loturak indartu behar ditugu ekintza guztiek eraginkorragoak izan daitezen.